

BITERI KALEKO TXURI BELTZEKO IRUDIAK

Koldo Ordozgoiti Juanenea

Hamazazpi urte bete berriak zituen Errenteriarra etorri zenean, ostalaritzan lan egiteko. Egungo ikuspegitik ume mokoia, gazteegia lan egiteko, garai hartan gauzak beste era baterakoak izan eta bere belaunaldiko gazte gehien antzera neskametzarako bidea lehenagotik hasia zuen.

Biteri kalera iritsi zen eta bere begietatik eta garaiko txuri beltzeko argazki, egun horiztatuetatik, ikusiko dugu orduko, garai haletako kalea eta jendea. Errenteriarra etorri zen urtea ez da erraz ahazteko modukoa, 1939a. Gerra bukatu zen egunetan iritsi zen, gainera. Gogoan du oraindik Donostiako Norteko geltokian eskua altxatuta, bera eta trenean zihoazen guztiak, nola egon behar izan zuten garaileek *cara al sol* kantatzen eta kanta arazten zuten bitartean.

Urte latzak ziren haiek. Josep Benet katalan historialariak esana du bizi izan ez ditugunok ezin dugula ulertu zein latzak izan ziren garai haiek, nahiz saiatu. Latza izan baitzen hogeita hemeretzia eta latza berrogeia; latza izan zen 41 -gosearen urtea- eta latza berrogeita bia ... eta horrela urtez urte, urte luzez.

Urte latzak eta ilunak. Kolore gabekoak, txuri beltzean edo kolore nabarretan irudikatzen ditut, margo falta hau agian hori bizi izan ez dugunon arazoa izango da, berau argazkien koloretan eta besteen memoriaren argietan ikusten baitugu, aldiz, garai haiek gaztaroan eta helduaroan bizi-tu zituztenek, bizitza guztiak bezala, kolore anitzetan izango dituzte gogoan.

Ezkondu zen arte bere bizitzako hemeretzi eman zituen bizi eta lan eginez 1939ko udaberri hartan ezagutu zuen Mateo-eneko Mendiola jatetxean. Hortik ezagutu zuen Errenteria eta bitxia bada ere, etxean ditugun garai horretako eta kalean ateratako argazki guztiak Biteri kaleko alde horretara begira hartuak daude. Iparorratza baillitza, foto guztiak aurrerakotik edo atzeragotik hartuta alde hori, kale espaloi hori erakusten dizkigute, jatetxearen ataria, terraza, jatetxe barrua, kalea bera eta aldiz ifrentzuan dugu beste aldea..

Iritsi zenean ireki berria zen jatetxea, mendiolatarrak zabaldua erbestetik Hegoaldera bueltatu ondoren. Ez zen hura jatetxe eta taberna jartzeko une erraza izango. Ez horixe! Hala ere lana eta esfortzuekin familiak eta bertan lan egiten zutenek jatetxea Errenteriako taberna eta jantokien olinpora eraman zuten. Balizko olinpo horren gorenean ibai ondoko Panier Fleuri izango zen, baino maila bertsuan Mendiola azaltzen omen zen, gure protagonistaren arabera.





Bi jantoki nagusi, bata beheran eta bestea goiko solairuan, terraza platanoen itzalpean, eta tabernako partea ziren publikoari zabalduko guneak. Horren atzean sukaldea, biltegia eta bestelako zerbitzu guneak eta goiko solairuan etxebizitzak, familiarena eta bertan lan egiten zutenena, horiek osatzen zuten Mendiola jatetxeko mundu txiki hurra.

Neska gazte hark ezagutu zuen Erreterria ez du zer ikusi gehiegirik egungo herriarekin, nahiz egungo Erreterria haren ondorengoa izan. Paisai hurbila, Biteri kaleko alde zehatz hori, ez da horrenbeste aldatu; Mendiola orain hogeitau urte itxi zen, terrazako platanondoak han dira nahiz terrazaren orde z Niessen zena-

ren orubean sortu den plaza eta merkataritzaguneko pasabidea izan egun. Beste paisaia, herria eta gizartea bera, guztiz aldatu da.

Eskasia eta gosea arruntak ziren argazkiak gogora ekartzen diguten mundu hartan. Jendearen janzkerari begiratzea besterik ez da horretaz jabetzeko. Jatetxearen atalaurrean neguko argazki batean azaltzen den jende multzoaren arropari begiratuta garai hartako zailtasunak ikusten ditugu. Janzkera pobrea da, hotza adierazten digu. Ez dago hor eta nekez aurkitu daitezke beste argazkietan, gizenik; zaila da horrelakorik ikustea ez horretan ez urte haietako beste argazkitan ere. Horrek gose urteak dakarzkigu gogora. Eskasia, arrazoinamendua, estraperloa.



Eta ezagutu ez ditugun iragana diren bestelako hainbat gauza. Bizirik da oraindik argazki hauen jabearen oroitzapen-tan Errenteriako uholdeen memoria. Berak ezagutu zituenak, berrogei hamarkadakoak, azkenak izan ziren eta zorionez ez ziren gerra aurrekoak bezain kaltegarriak gertatu. Gogoan du marea bizien urtaroetan eta euria gogor hasten zenean nola, badaezpada, beheko apaletan eta lurretik hurbil zeuden gauzak gora igo behar ziren. Eta lehorrean gorde behar horretan, pertsona eta gauzaz gain, batzuetan etxe abereak ere bazeuden. Gose urte haietan jotetxean gizendutako zerrikumea esate baterako, etxeko baineran gorde behar izan zena uretatik libratzeko eta bide batez bainera labainkorrean ezin irtenda zaintzeko.

Uholdeen arrazoi ez omen zen horrenbeste erria, Oiartzun ibaia, -hau ere bai- baizik eta padura izandako honetan ibairatzen diren errekek, Pekin, Gaztano... Horietako uholde batean, bere onetik ateratako Pekin erre-kako urek Lanerako artilearen garbiketa eta koloreztatzeko erabiltzen zen azido biltegia aurretik eramango zuen beldurraren eraginez batek baino gehiagok ez omen zuen lo egin Tintoreriako azido biltegi horien beldur.

Argazki zahar hauetan uniformeak ez dira batere arraroak, soldadu uniformeak. Gerra pairatu zuen gizarte hura islatzen zaigu hor. Gizarte militarizatua. Errenteria hartan militar ugari ziren, Arkaleko kuartela, San Marko,

Txoritokieta, Guadalupe, Loiola... bertan ziren. Francoren armada non nahi zen. Eta lehen urte haietan militarrez gain, behartutako eta zigortutako soldaduak. Horren lekuko gure eskualdean, Jaizkibelgo bidea edo Arritxulegiko tunela zabaltzen, langile batailoietan penatu behar izan zuten ehunaka lagunek

Argazkiek irudien bitartez mintzatzen dira, ez dute ahotsik eta ez dute mintzairarik gordetzen. Oroitzak bai. Ametsak irudi eta hitzekin osatzen omen ditu garunak, gure oroitzapena usaimenez, soinu eta irudiz gain hitzak osatzen dute. Itsatsitako argi izpi hauetan gordetako momentuetako asko, gehienak ez esate arren, euskaraz gertatu ziren. Euskara baitzen -larreakoa, debekatu, jazartua- baino herri haren eguneroko hizkuntza, nahiz agintea armen bitartez zutenek zigorra eta mehatxua erabili izan, "*hable en cristiano*", euskara ukatzeko.

Egun argiz egindako argazkiak dira. Ez baitzen erraza ilunpetan fotoak egitea. Urte ilun eta nabar gisa definitu ditugu haiek. Iluntasun hori ez zen bakarrik alegiazkoa. Garai hartako Errenteriako etxeetan eta kalean iluntasuna nagusi zen eguzkia sartzen zenean. Argindarra gurean Urumea ibaian kokatutako Epeleko Errenteriako argindar etxearen pentzutan zegoen eta elektrizitate etenaldiak lege ziren; batzuetan erreka agorra zelako eta besteetan ur emari gehiegi zekarrelako, argi-etenaldiak ugariak ziren eta kandela argitan argitu behar zen iluna.



Argazkiak alaiak dira. Memoriarekin gertatzen den bezala, argazkietan gordetzen den irudia oso selektiboa delako. Gizakiok gauza txarrak ahazteko aukera eta beharra dugu, horregatik oroitpenetan pozak eta tristurak nahasi arren oroitzak errazago gordetzen ditu une alaiak. Are gehiago argazkietan eta orain gehiago txuri beltzeko hauetan, garai haietan erretratuak egitea ez zelako orain bezain erreza eta arrunta. Horregatik, agian, esku artean ditugun irudi gehienak ospakizunetakoak dira, hau, bestalde ez da batere arraroa argazkiak jabetxe girokoak direnean. Baina ez da hori arrazoi bakarra izango.

Gipuzkoa barrualdeko herri txiki batetik Errenteriaratu zen andre hark herri alaitzat du berea egin duen hau. Eta alai, bereziki denbora zail eta ilun haietan, nahiz garai latza izan edo agian horrexegatik. Alaitasuna pertsonetan omen zegoen. Gaizki pasatzen ari ziren eta ala ere, edo agian, horrexegatik, giro onaren sinonimoa zen Errenteria hura. Ez zegoen aisialdi eta festarako aukera gehiegirik, lana gogor egin behar zuten. Igandeetako Alamedako dantzaldiak, aste-ko jai egun bakarreko irtenaldiak, batzuen parrandak, sagardotegietako giroa... eta Madalenak. Festa eta jai aukera horiek ez ziren horrenbeste historia honen haria den protagonistarentzat, garai haietan gizon-zkoenak soilik baitziren batzuk eta beste gehienetan ostatu bateko behargina izanda besteen festa berarentzat lan unea baitzen.

Arestik idatzi zuen moduan lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia; ez daude argazkietan baino lanaren inguruan sortutako anekdotak ugari ditu eta gogoan ditu oraindik orain. Altzairu herdoilgaitza, inoxidablea, zabaldu baino lehen, jabetxeetako mahai-tresneria (ona) zilarrezkoa zen, hori horrela eta koilarak, sardexkak eta labanak garbitzen ari zenean bezero hark usainaren harira zer zein xaboi erabiltzen zuen galdetu zionean eta zilarra garbitzeko xaboi markaren izena eman ondoren, beste hark bere andregaiarentzat xaboi-perfumetzat hartuta denda zilarra garbitzeko eskatu zuenean sortutako gaizki ulertuaren gisakoak.

Bada argazkietan kirolarekin zer ikusia duen bat Jende multzo handia azaltzen zaigu bertan, orain Olaskoaga plaza berri-rako sarrera den eta garai hartan Mateo-enea eta Mitxelena etxeen terrazak ziren lekuan ateratakoa. Bertan, errepidera begira txirindulari lasterketa batean karreristen zain azaltzen zaigu jendea. Beha ezazue multzoa,

horien artean zuek zeuk edo eta familiare-koren bat aurkituko baitezakezue, agian.

Argazki hauen garaian ez zegoen telebistarik, hemendik urruti, itsas haraindi, has-tapenetan zen, baino hemen hamarkadak falta zitzaizkion ezagutu eta garatzeko. Zinea bazen, gramolaren ondorengoa sortua zen eta irratia ere zabaldua zen. Egunkariak alderdi bakarrekoak ziren, ezarritako sistema politikoa bezala. Hedabideek ez zuten inon-dik ere egun duten garrantzia eta boterea. Hala ere ordurako baziren masa fenome-noak eta horietako bat gure herrian sortu zen, Los Xey musika taldea. Honen fama eta popularitatea nabarmena izan omen zen, hemen eta hemendik kanpo. Bertakoak izan-da, argazki hautako batean xey musika tal-dearen kideren bat azaltzeaz gain, etxeko fotografietan Los Xeyren promoziorako arga-zki dedikatua gorde izan du gure Felik.

Biteri kale hura, orduko herria eta jen-dea bizirik daude txuri beltzeko argazki hauetan. Beste iragan bati buruz, *"berriz itzuliko balitz, iragan denbora arrotza, berdin kontsumi nezake bainila gozo artean"* idatzi zuen bertso paregabean, bere Habaneran, Xabier Letek *"Jaio ginen, bizi gera, ez dugu ezer eskatzen"*, irudietan gordea dugu izan zen mundu hura eta gurekin da, oraindik orain, izan zirenak diren eta haiek eta ez ginenak orotzan dugun bitartean. ■

